

ORTZURI

R. M. AZKUE apaizak

IRU ATALETAN TA EUSKERAZ EGINDAKO

OPERA

BERE ADISKIDE MAITE

URQUIJO anayai

ZUZENDUA

Bilbon. 1909-1910.

OPERA

ESCRITA EN TRES ACTOS Y EN VASCUENCE

P O R E L

Presbítero Dr. AZKUE

DEDICADA

A SUS QUERIDOS AMIGOS

los hermanos URQUIJO

En Bilbao, 1909-1910.

AGERLAGUNAK. — Personajes de escena.

	TELES (<i>gaitzizenez</i> , por apodo) ILEDER; <i>arrantzalea</i> , pescador.
	LAITIZ; <i>itšasgizona</i> , piloto.
<i>Gizonak</i>	TŠILI; <i>iragarlea</i> , <i>atalayero</i> .
Hombres	ARTZABAL; <i>ugarikaduna</i> , patrón de lancha.
	ZATIKA; <i>uqarikalaguna</i> , tripulante de lancha.
	KIZKIRRI; <i>uqarikalaguna</i> , tripulante de lancha,
	ARROZPE; <i>Laitizen osabâ</i> , tío de Laitiz.
	ELIA, Coro.
	BASILI, (<i>gaitzizenez</i> , por apodo) ORTZURI ¹ .
	KONTZE, (<i>gaitzizenez</i> , por apodo) MINZORROTZ ² .
<i>Emakumeak</i>	MARI BATI; <i>Artzabalen arrebâ</i> , hermana de Ar-
Mujeres	tzabal.
	MARI ANDRES; <i>Tšiliren emaztea</i> , mujer de Tšili
	LAITIZEN IZEBA, la tía de Laitiz.
	ELIA, Coro.
	MAKOLIN.
	IÑASIO MARI.
<i>Mutikoak</i>	SERENO TŠIKI
Mozalbetes.	PAROLES
	POLI.
	ELI BIKOITZA, doble coro.

1. Significa denticándida, la de los blancos dientes.

2. Significa lenguaraz, la de la lengua afilada.

LENENGO ATALA

Mendiriko kayan, Bizkaiko itšasoan.

LENENGO AGERRALDIA

(Mendiriko kaya. Izartura ederra. Udaberriko goizaldea. Laurakinguruan. Agertoyala jasoeran, Tšili ta lau ugarikadun ozta-ozta ikusiak izango dira agertokian, beren artean Artzabal, argiontzi bana eskuetan dutela. Kai-gaiñean, ikustên aurrez aur, barren-barrean, arrizko kurutze andi bat agiri da).

ARTZAB. ¡Eguraldi onen ederra!

TŠILIK. ¡Hm! Etzekiat (**13, 11 A**). ¿Ezaldakutsute (**1**) argi, odeiertzean, ekaitzaren ernamuiñ beltza? ¿eta zororik nai zendukete gaur itšasora irtetzea?

ELIAN. Bai guk, berealaše.

ARTZAB. Tšoriak (**2**) galazia bezelaše, ekaitz-ernamuiñ ori jatera, latsaize atsegiña poparean degula, belak bete-bete goazen kalara.

TŠILIK. Ez gaur (**11, A**), ez batzar andiari ots eta atabakak itz egin gabe. (Tšili kalealdera poliki doa.)

ELIAN. ¿Zertara (**2**) oa, Tšili, buru-gogor ori?

TŠILIK. Laster jakingo dezute, tšimiztok. (Ayenatzen da.)

ARTZAB. Eguzkiaren guar aurrenak zurituko dizkigu ire ernamuiñ beltz ori. (Izarretara begira luzaro.)

TŠILIK. (Kale-artean.) Simon, ator Talayara. Antonio Mari, ator Talayara. Pedro Juan, Anton, Tšanbolin, Juan Blas, Berdel : zatozte guztiok Talayara bizkor.

BATEK. (**13**) Lepozaletu zaigu Tšili.

ARTZAB. (**11, A**) ¿Zârtzaroan nor eztek lepozale?

TŠILIK. (Atabaka erakutsiaz) (**15**) ha emen, ona emen buruzpidea ezbayetan ematen digun adiskidea, asabengandikako atabaka.

ARTZAB. (**11, B**) Izarrak karkar ari dituk atabaka orri begira. (Arrasi bat irazeki beza). Galgot-aize gozoa arrast onen gar ezereztšo au itzalteko indar gabe dator. Gaurko egurraldi au zart igarteko, ezuen izaki orren bearrik. Tša-

PRIMER ACTO

En el puerto de Mendiri, mar de Bizkaya.

ESCENA PRIMERA

(Puerto de Mendiri. Hermoso firmamento, estrellado. Amanecer de primavera. A eso de las cuatro. Al levantar el telón, serán vistos en escena con dificultad Tšili y cuatro patrones de lancha, entre ellos Artzabal, teniendo en las manos sendos faroles. Sobre el puerto, frente á frente de los espectadores, en el fondo, se deja ver una cruz grande de piedra.)

ARTZABAL. ¡Qué hermoso tiempo!

TŠILI. ¡Hmm ! No lo sé. ¿No veis acaso **(1)** claramente, en el horizonte, negro germen de tempestad? ¿y quisierais, locos, salir hoy al mar?

EN CORO. Nosotros sí, en seguidita.

ARTZ. Como pájaros **(2)** á simientes de trigo, vámonos á la altura á comer ese germen de tempestad, con viento terral agradable por la popa, llenas las velas.

TŠILI. Hoy no **(11, A)**, no sin haber llamado Ajunta magna y sin que hable la urna (Tšili va poco á poco hacia la calle).

EN CORO. ¿A qué **(2)** vas, Tšili, terco?

TŠILI. Lo sabreis pronto, rayos (Desaparece).

ARTZ. El primer rayo de sol nos blanqueará ese tu negro germen. **(3)** (Mirando á las estrellas largo tiempo.)

TŠILI. (Entre calles). Simón, ven á la Atalaya. Antonio María, ven á la Atalaya. Pedro Juan, Antonio, Tšanbolin, Juan Blas, Berdel: venid todos á la Atalaya presto.

UNO. **(13)**. Tšili se nos ha hecho conservador.

ARTZ. **(11, A)** ¿Quién no es conservador á la vejez?

TŠILI. (Mostrando la urna). **(15)**. Hed aquí, hed aquí el amigo que nos da consejo en las dudas, la urna que nos viene de los antepasados.

ARTZ. **(11, B)**. Las estrellas se rien á carcajadas mirando á esa urna (Enciende una cerilla). El viento forano suave viene sin fuerzas para apagar la débil llama de esta cerilla. Para acertar el tiempo de hoy, no tenías

pel-zuloka ari gaitzeri gu orain, Tšili, Tšili lagun zârra. Tšapel bada. . .

ELIAN. ¿Zer?

ARTZAB. Elurra

ELIAN. Jajajajaja. (Parrez.)

ARTZAB. Zulo bada...

ELIAN. ¿Zer?

ARTZAB. Zaldizko beltzak, odei-artean bultzaka, lauroinka, tšimizturrika.

ELIAN. Jajajajajaja. . . (Parrez itotzen.)

ARTZAB. Gizonak, esan : tšapel ala zulo.

(Ugarikadunak, aurrak bezela (4), jostatu hitez. Artzabalek tšapela gora-goraka jaurtiki beza ta batzuek «Tšapel», beste batzuek «Zulo» ta batek «Ertz» esango dute. Oro daude parrez aldarte oneko.)

BATEK. An agiri dituk zaldizko beltzak. Jajajajaja.

ARTZAB. (Besondotik oratuta berama Tšili alde batera ta beatez berakuskio orain izar batzuek, beste batzuek gero.)

¿Eztakuskik Artzain eta iru Erregeak an, alkarri maiztšo keinuka, zerbait iragarten? ¿Eztakusk ire ernamuiñ beltza, zaldi-aurpegiaz, Lapur oni begira?

TŠILIK. ¿Irri? ¿Parre?

TŠILIK. { Eztek beti ez irri ez parre, orain bezela, egin al izango. Itotzea bada, o ume-burudun bioztsuok, ni enauk itoko.

ARTZAB. { (13) Seme bakarra ederra bera, duen iragarleak burutasun-artean ekaitz-azi beltza gau izarratuan maiz sortzen du.

UGARIKADUN ETORRI BERRI BATEK. (Tšiliri) ¿Zertara gakaizkik? (11, B.)

BESTE BATEK. ¿Izarrak ikustera?

IRUGARREN BATEK ¿Ze berri degu, Tšili?

BESTE BATZUEK (Izarretara begira). Agur bat (3), o Artizar eder, gure lagun zintzo kirmen orri. Ikirazekiten diguk gure arraunak lenen sortzen duen aparra.

TŠILIK. (Atabaka eskuan duela). (15) Ezker, etšea; eskubi dezute ugarika. Tori goronbilak ta izan zaitezte gizon. (Bi argiontziren erdian, arrizko kurutzearen bêko aldean (12, 11, A; 3, 12, 13) utziko du Tšilik atabakâ; ta ugarikadunak, ogeita laurak, sartuko ditzute goronbilak atabakao; ogeita bik ugarikaldean.)

ARTZAB. (Goronbilak atabakarutakoan.) Orain zeinbaitzak ik.

TŠILIK. ¿Begirik ezaldek, odoiertza goibel ikusteko? (Zeinbaitzen asi bite). .Zazpi . . . zortzi. . . amar. . . amalau... ama-sej. . . ogei... ogei mila tšimiztarekin. (Jaurtiki bitza goronbilak.)

necesidad de ese artefacto. Juguemos ahora, Tšili, á boina y hueco, Tšili amigo viejo. Si es boina...

EN CORO. ¿Qué?

ARTZ. Nevará.

EN CORO. Jajajajaja (Se rien).

ARTZ. Si es hueco...

EN CORO. ¿Qué?

ARTZ. Negros nubarrones (liter. ginetes), vendran empujándose entre nubes, á galope, echando rayos.

EN CORO. Jajajajaja (Se rien á carcajadas).

ARTZ. Hombres, decid : boina ó hueco.

(Los patrones diviértense como niños **(4)**. Artzabal arroja á lo alto la boina y unos dirán « Boina », otros « Hueco » y uno « Esquina ». Todos se rien de buen humor.)

UNO. Allí aparecen negros nubarrones. Jajajajaja.

ARTZ. (Lleva agarrado del brazo á Tšili á un lado y muéstrale con el dedo ahora unas estrellas, luego otras.) ¿No ves allí al Pastor y á los Tres Reyes, guiñándose á menudo, anunciando algo? ¿No ves tu negro germen, con cara de caballo, mirando á este Ladrón?

TŠILI. ¿ Te burlas? ¿Te ries?

TŠILI. | No podrás siempre reirte ni burlarte, como ahora.
| Si alguien ha de ahogarse, oh vosotros, los de cabeza
| de niño y gran corazón, no seré yo el ahogado.

ARTZ. **(13)**. El atalayero que tiene hijo único, hermoso él, se forja muchas veces negro germen de tempestad en noche estrellada.

UN PATRÓN RECIÉN VENIDO (A Tšili). ¿A qué nos traes **(11, B)**.

OTRO ¿A ver las estrellas?

UN TERCERO ¿Qué noticias tenemos, Tšili?

OTROS. (Mirando á las estrellas) Un saludo **(3)**, oh hermosa estrella del alba, á tí nuestra compañera fiel, leal. Tú nos enciendes la primera espuma que levanta nuestro remo.

TŠILI. (Teniendo en la mano la urna) **(15)** A la izquierda, la casa; á la derecha tenéis la lancha. Tomad las bolas y sed hombres. (Tšili dejará la urna entre dos faroles en el zócalo de la cruz **(12, 11 A, 3, 12, 13)** ; y los patrones los veinticuatro, depositarán las bolas en ella, veintidos en el lado de la lancha.

ARTZ. (Después de depositadas las bolas.) Ahora cuéntalas tú.

TŠILI. ¿ Acaso no tienes ojos para ver el horizonte encapado ? (Empiece á contar) Siete... ocho... diez... catorce...

ELIAN. Itšasora.

TŠILIK. Gizonak : **(1)** ¡bi ordu barra oro etšera begira egon bayetz! ¡Oro bizirik ezetz!

ARTZAB. (Gogor) Zakur orrek ¿zer diok?

ELIAN. (Gogor) Zakur ori, isilik ago, iñuska ori. Erori lepozale bâiz, guk eztiagu lepozale izan nai. (Guk eztiagu inoiz izan nai orla lepozale).

ORTZURIK. (Kale-artean) Ileder **(44)**.

TŠILIK. Nere semearen deya.

ORTZURIK. Gora Jaungoikoaren izenean.

TŠILIK. ¡Aur eder maitea! ¿Ezotedegu **(32)** gaur, Teles, ire azken eguna?

ARTZAB. Gaišo au **(1)** burutik makal zegok eta utzi bear zioagu.

BATEK. (Odeyeta begira.) Zantzu tšit tšarra antzematen diat nik.

ARTZAB. ¿Nun?

BATEK. An.

ARTZAB. Etzegok ezer an.

GEYENAK. Goazan kayera **(2)**. Koldarrak zantzu tšarra beti dakuste. Odei beltzez ikarutzen dan gizonak arraunaren ordez aitzurra ta mazitzat ongarria, garaiz begiz joaz, ar bitza.

OROK ELIAN. **(11)** Goazemak aurrera **(3)**.

BIGARREN AGERRALDIA

DEI EGITEKOEN ALDARRIAK KALE-ARTEAN

(Mendirin kalarako ugarika guztiak dei egiteko emakume bana daukate. Batzarreko ugarikadunak itšasoratea erabaki oi dutenesoše, asten dira berak aldarrika « Urlia : gora Jaungoikoaren izenean. »)

MINZORROTZEK. **(5)** Jose Lorentzo **(43, 44)** : gora Jaungoikoaren izenean.

MARI ANDRESEK. Martin ipar otzarena : **(43)** gora Jaungoikoaren izenean.

MARI BATIK. Simontšo (43, 44) : gora iaungoikoaren izenean.

MINZORROTZEK. Antonio Paitarzale **(43)**.

MARI ANDRESEK. Iñasio Martin **(43)**.

MINZORROTZEK. Juan Blas tšiki **(43)**.

MARI ANDRESEK. **(44)** Gora Jaungoikoaren izenean **(5)**.

MARI BATIK. Jose Antonio **(43)**.

diez y seis... veinte... con veinte mil rayos (Arroje las bolas).

EN CORO. Al mar.

TŠILI. Hombres : **(1)** ¡A que dentro de dos horas estáis todos mirando á casa! ¡A que no todos vivos!

ARTZ. (Con dureza.) Perro ¿qué dices?

EN CORO. (Con dureza.) Perro, calla, lelo. Si tú eres cobarde, nosotros no queremos serlo.

ORTZURI. (Entre calles.) **Ñeder (44)**

TŠILI. Llamada de mi hijo.

ORTZ. Arriba en nombre de Dios.

TŠILI. ¡Niño hermoso, amado! ¿No será **(32)** hoy, Teles, tu último día?

ARTZ. Este pobre está débil de cabeza y dejémosle.

UNO. (Mirando à las nubes.) Barrunto mala señal.

ARTZ. Dónde?

UNO. Allí.

ARTZ. Allí no hay nada.

LOS MÁŠ. Vámonos al puerto **(2)**. Los cobardes ven siempre mala señal. El hombre que se asusta de nubesnegras, debe tomar, eligiéndolos á tiempo, en vez del remo la azada y por raba abono.

TODOS EN CORO. **(11)** Vámonos adelante **(3)**.

SEGUNDA ESCENA.

CLAMORES DE LAS LLAMADORAS ENTRE CALLES

(Todas las lanchas de altura tienen en Mendiri una llamadora cada una Encuanto los patronea acuerdan en junta hacerse al mar, empiezan ellas á dar voces « Fulano : arriba en nombre de Dios »,)

MIINZORROTZ. **(5)** José Lorenzo : **(43, 44)** arriba en nombre de Dios,

MARI ANDRES. Martin el del cierzto frio : **(43)** arriba en nombre de Dios.

MARI BATI. Simoncito : **(43, 44)** arriba en nombre de Dios.

MINEORROTZ. Antonio Paitarzale (amigo de aguardiente). **(43)**.

MARI ANDRÉS. Ignacio Martin **(43)**.

MINZORROTZ. Juan Blas el pequeño **(43)**.

MARI ANDRÉS. **(44)** Arriba en nombre de Dios **(5)**.

MARI BATI. José Antonio **(43)**.

MARI ANURESEK. Juan Julian (43).

MINZORROTZEK. Andres Arriola (43, 44) : gora Jaungoikoaren ize-
nean.

IRUGARREN AGERRALDIA

ÏLEDER TA ORTZURI

(Ortzuri, besapean otar bat duela; Teles (Ïleder), zirazko jantziaz.)

ÏLEDERREK. ¿Zergatik (17) ezten, Ortzuri, elizondoko usoak bezela egiten : eguzkia esnatu-arte, ik ere lo lo? ¿Zertarako (17), enetsoa, beti gaur bezin goiz jaiki? ¿Nola (17), orren laster âztu alzain, nere maite orri, negu ontako ondezaldi luze aura? (5). ¿Zerren (17) ezten ik dei egitekoen eskuetan uzten neri « Teles, gora » (43) esateko ajolâ?

ORTZURIK. (18) ¿Zer dek? ¿ezalnazaguk, Ïleder? (6 A) Eguratsa naiz argia emakumezko balira (6 B), nerau bai egurats bai argi egingo nindukek eta ik ezuke nizaz beste egurats ta argirik bat ere.

ÏLED. (18) ¡Nere Ortzuri maite ori!

ORTZ. (6 A). Nere zintzur onek ots egin al duelarik ¿nai uke nik beste emakumeri uztea (6 B), erorren izena ta Jaunarena aipatuz, erorrekin miutzatzeko aukerâ?

ÏLED. Aizea baintz, egutaizea intzake : aize biguñ, atze atsegin, aizeska ontsua...

ORTZ. Biguñago dek ta atsegiñago ire mingaña.

ÏLED. Galtzu mengelik ereintzetan makurtzen eztuen aizea.

ORTZ. ¿Nun ikasi dek izkuntza ori?

ÏLED. Biotzak ez tin maisurik.

KIZKIKRIK. (Beste bereiñen artean nasa-gaiñean ugari karontz doala)(3).

Berriketako gogo goiztshotik degu, gazteak. ¿Etzerate ikarutzen datorren ekaitzaz?

ORTZ. (Gertuen dan arrantzaleori.) (19) ¿Egia alda ekaitza degula?

ÏLED.. Ezta zantzurik.

BATEK. Etzekinat.

ORTZ. (Beste bati). Esan neri, arren, ekaitzik laster otedegun.

UESTE ONEK. Batek bazekin.

ORTZ. (Ïlederri). Ezadi, Teles, gaur orrera joan.

ÏLED. ¡Nola! (Ezti-ezti) (5). ¿Noiztik dion itšaso ederrari bildur andi au, Ortzuri, nere maite orrek?

MARI ANDRÉS. Juan Julian (43).

MINZORROTZ. Andrés Arriola : (43, 44) arriba en nombre de Dios.

TERCERA ESCENA

ILEDER Y ORTZURI

(Ortzuri, llevando un cesto bajo el brazo; Teles (Iñeder) con vestido impermeable.)

IÑEDER. ¿Por que (17) no haces, Ortzuri, lo que las palomas de junto á la iglesia : mientras despierta el sol, cómo no duermes también tu? ¿Para qué (17), prenda mía, te levantas siempre tan temprano? ¿Cómo (17), tan pronto te has olvidado, amada mía, de aquel largo arrechucho de este invierno? (5) ¿Por qué (17) no dejas en manos de las llamadoras el cargo de decirme « Teles. arriba »? (43).

ORTZURI. (18) ¿Qué tienes? Acaso no me conoces, Iñeder? (6 A) Si el aire ó la luz fuesen mujeres, (6 B) yo me haría luz como también aire y tú no tendrías otro aire (que respirar) ni otra luz (que ver) sino á mí misma.

IÑEDER. (18) ¿Oh, tú, mi amada Ortzuri!

ORTZ. (6 A) ¿Quisieras que, mientras esta mi garganta pueda producir sonidos, dejase yo á otra mujer (6 A) la ocasión de hablar contigo. invocando antes tu nombre y el del Señor?

IÑEDER. Si fueses viento, serías céfiro : viento blando, viento agradable, vientecillo beneficioso...

ORTZ. Más blanda es y más agradable tu lengua.

IÑEDER. Viento que no tumba las débiles mieses en los sembrados.

ORTZ. Dónde has aprendido ese lenguaje?

IÑEDER. El corazón no tiene maestro.

KIZKIRRI. (Yendo como muchos otros sobre el muelle hacia la lancha.) (3). Desde muy temprano tenemos, jóvenes, ganas de charlar. ¿No os asustáis de la tempestad que viene?

ORTZ. (Al pescador más cercano) ¿(19) Es acaso verdad que tenemos tempestad?

IÑEDER. No hay señal.

UNO. No lo sé.

ORTZ. Neri eskaiñia, arotz izatea ¿noiz, noiz beteko didak, Ñeder?

ĨLED. (Itšasora begira) **(5)** Itšas maitea, agur dagikeat ezkon-
duta bereala. (Arrantzale batzuek nasara igo bitez).

ZATIKAK. (Ñederri). Ator, etorriko bâiz.

ARTZABALEK. (Berari). ¿Bâtor ala ezator, berritsu ori?

KIZKIRRIK. (Berari). Ire begira, Teles, luzaro gaudek. Asteko aizela
gaur ere âztu zaik.

ARTZAB. ¿Aita bildurtik bildurtu alau?

ĨLED. Bildurra zer dan eztet gaurrate antzeman, o gizonak.
¿Lagunak or aldira bilduak?

IRURAK. ¿Emaztegayaz izkide izateko aitzakiak, geldo orrek,
nai al dituk? Gizon eder, gizon alper.

KIZKIRRIK. Otoitz-ordua eldu dek, Teles.

LAUGARREN AGERRALDIA

ESKARIA

(Kalarako ugariketan otoitza beti egiten da badiatik irten-orduko; ugarika askotan nagusiak esaten du zein santuri; batzuetan lagunak asteka egin oi dute. Eskari onen bitartean ugarikarik ezta agiri. Agertokian Tšili ta Ortzuri daude. Berok ere, arrantzaleak aridiranartean, otoitzean.)

ĨLEDEREK. Zuri, Nikolas zaintzaile orri, goitik gizaldi askotan
errukiz adi zauden orri. (Bere lagunak Aita gurea ta Agur
Maria bi elitan eta agopean esan bezate.) Zuri, arrantzale andi
orri, ekaitzik gogorrenetan, Pedro, zaintzen gaituzun
opi. (Beste Aita gurea ta Agur Maria bat edo bi). Zuri, gure
Ama samur orri, arren otoitz egin zazun **(5 B)**, gure
artetik lenen ito bear duenarentzat ;j o Ama !! eske
gagozkitzu.

ARRANTZALEAK ELIAN. (Ikusten eztirala.) **(45 A)**. Agur Maria, doariz
betea, Jauna da zurekin, onetsia zera.

ĨLED. **(45 B)**. Andreguztien artean eta onetsia da zure sabe-
leko arnaria, Jesus, Maria dontsua, Jaunaren Ama,

ARRANTZ. Gu obendun onentzat otoitz egin zazu,

ĨLED. Otoitz egin zazu.

ARRANTZ. Orain ta batez ere gure erioztorduan : Arren.

ORTZ. (A otro) Dime por Dios si tendremos pronto tempestad.

ESTE OTRO. Uno lo sabe (Dios lo sabe).

ORTZ. (A Ñeder) No vayas, Teles, hoy ahí.

ÑED. ¡Cómo ! (Muy suavemente) **(5)** ¿ Desde cuándo tienes este gran miedo al mar, Ortzuri, amada mía?

ORTZ. ¿Cuándo, cuándo vas á cumplir, Ñeder, lo que me prometiste : ser ebanista?

ÑED. (Mirando al mar) **(5)** Mar amado, en cuanto me case me despediré de tí. (Suban unos pescadores al muelle.)

ZATIKA. (A Ñeder). Ven, si has de venir.

ARTZABAL. (Al mismo) ¿Vienes ó no vienes, hablador.

KIZKIRRI. (Al mismo) Hace mucho que te aguardamos, Teles. También hoy has olvidado que estás de semana.

ARTZ. ¿Te ha amedrentado acaso tu medroso padre?

ÑED. Hasta la fecha no he advertido lo que es el miedo. ¿Están ya ahí los compañeros reunidos?

LOS TRES. ¿Quieres pretextos para seguir charlando con la novia? Hombre hermoso, hombre ocioso.

KIZKIRRI. Ha llegado, Teles, la hora de la oración.

ESCENA CUARTA

LA PLEGARIA

(En las lanchas que van á la altura se hace siempre oración, antes de salir de la bahía. En muchas lanchas el patrón dice á qué santos; en algunas los tripulantes alternan por semanas. Durante esta plegaria no se ve ninguna lancha. En escena están Tšili y Ortzuri. También ellos ruegan, mientras hacen oración los pescadores.)

ÑEDER. A vos, á vos Nicolás patrono, á vos que en muchas generaciones estáis de compasión atento á nosotros. (Sus compañeros divididos en dos grupos recen el Padre nuestro y el Ave María). A vos, á vos gran pescador, á vos, Pedro, que en las tempestades más duras nos protegéis. (Otra Ave María). A vos, á vos nuestra Madre tierna, os suplicamos interpongáis vuestro valimiento ¡¡ oh Madre !! por el primero de nosotros que haya de ahogarse.

LOS PESCADORES A CORO. (Sin ser vistos) **(45 A)**. Dios te salve, María, llena de gracia, el Señor es contigo, bendita eres.

ÑED. **(45 B)** Entre todas las mujeres, y bendito es el fruto de tu vientre, Jesús. Santa María, Madre de Dios.

BOSKARREN AGERRALDIA

ORTZURI, TŠILI TA MINZORROTZ.

Geroago emakume asko ta arrantzaleak badiatik atzera.

ORTZURIK. T(šiliri.) Antzeman dezu, Tšili, **(1)** gure Telesek ares-tian nolako biozkela iñenez ziranskun lenen itoaren-tzako otoitz samuraura ¡¡ o Ama !! (Negarrez).

TŠILIK. (Ezti-eztirik). O Basili, etzan negarrik egin.

ORTZ. Aitagai maite, iragarle ori ¿egia alda ekaitza dator-rela? **(21, 5)**. Tšilik, bira emanez, negar egin beza. Ortzuri, au antzemanetz, estuturik badialdera begira ta deadarrez. Ileder **(43)**. (Bego apurtšo batean erantzumena ez zuzen nairik.) Teles **(4)**. (Ber-ritz ere, eskua belarrian duela, adi bego.) Ezadi, arren, gaur kalaratu.

MINZORROTZEK. (Iñunpetik.) Ezantzu.

ORTZ. (Laborrian, kalealdera begira) ¿Nor zera? (Iñork jaramonik ez. Ortzurik mantala, soiñetik askatuta, erabili tabeza ta gora bêra argi-ondoan.) **(6)**. Nora oakit, nere Ileder. Errukinazak, maite banauk.

MINZ. (Ilunpetik.) Ezakus gora ta bêra Ezaramo.

ORTZ. (Izu-izurik) ¿Nor aiz? ¿Gauargiren bat noski?

MINZ. (Agertokian). Bai, begira neri; eta i, Basili **(7)**, gauargi izugarri atzapartsu baten alabâ.

ORTZ. ¿Si, zure alaba ? ¿Ni?

MINZ. **(22)** Zirzil galduak ibĩli oi ditun goiznabarrean muti-len atzetik. Burua autsiko diñat, Basili, Teles zar-patsu ori utzi ezpadezan. (Emakume batzuek urreratu bitza.)

ORTZ. Nik Teles utzi? Lenago il.

(Minzorrotzek, belauniko belaun-biñozen gaiñean 1 jarrita, biragoa jaurtiki beza, besoak zabalik, oskorora begira).

MINZ. **(23)** Arren, zeruko Jauna, ugin gaitz batek Teles eraman dezala, gaur berean. (Emakumcak garrasiz ta intzirika. Ortzuri mintzuriz erori bedi.)

MARI ANDRESEK. ¡Biragoa! ¡Teles gaisoaren errukarria! (Badiatik betoz nasara arrantzale batzuek **(30, 3)**.)

ARTZABALEK. ¿Zoraturik alzaudete, emakumeak?

ZATIKAK. ¿Zer ari zerate garrasika?

1. Birago gartsu baten ezaugarria omenda.

LOS PESCADORES. Ruega por nosotros pecadores.

ÑED. Ruega por nosotros.

LOS PESCADORES. Ahora y en la hora de nuestra muerte : Amen.

ESCENA QUINTA

ORTZURI, TŠILI Y MINZORROTZ

(Más tarde muchas mujeres y pescadores volviendo de la bahía.)

ORTZURI. (A Tšili). ¿Ha advertido V., Tšili **(1)**, con cuán triste sentimiento decía hace un momento nuestro Teles aquella tierna oración por el primer ahogado ¡¡ oh Madre !! (llorando).

TŠILI. (Muy dulcemente) Oh Basili, no llores.

ORTZ. Amado padre futuro, V. que es atalayero ¿es verdad que viene la tempestad? **(21, 5)** (Tšili volviéndose llora. Ortzuri que lo advierte, se inquieta, se vuelve hacia la bahía y grita) Ñeder **(43)**. (Quédase un momento deseando oír la respuesta.) Teles **(4)**. (De nuevo atiende, puesta la mano en la oreja.) No vayas por Dios hoy á la altura.

MINZORROTZ. (Por entre tinieblas) No le oye.

ORTZ. (Medrosa, mirando hacia la calle) ¿Quién soís? (Nadie hace caso. Ortzuri descíñese el delantal y lo agita junto á la luz). A donde te me vas, mi Ñeder. Ten compasión de mí, si me amas.

MINZ. (Por entre tinieblas). No te ve. No te hace caso.

ORTZ. (Muy espantada). . . ¿Quién eres? ¿Tal vez alguna duende?

MINZ. (En escena) Si, mírame? ¡y tú Basili **(7)**, hija de una espantosa duende, de garras afiladas.

ORTZ. ¿Yo, hija de usted? ¿Yo?

MINZ. **(22)**. Las desvergonzadas, las perdidas suelen correr al amanecer tras los muchachos. Te he de romper la cabeza, Basili, si no dejas á ese andrajoso de Teles. (Acérquense unas mujeres.)

ORTZ. ¿Yo dejar á Teles? Antes morir.

(Minzorrotz, puesta de rodillas, sobre rodillas desnudas lance una maldición, con los brazos abiertos, mirando al cielo.)

MINZ. **(23)**. Suplico, Señor del cielo, que una ola enorme arrastre á Teles hoy mismo. (Las mujeres gritan y chillan. Ortzuri cae desmayada.)

MARI ANDRES. Maldición ! ¡Desgraciado del pobre Teles! (vienen de la bahía algunos pescadores al muelle **(30, 3)**).

ARTZABAL. ¿Estáis acaso locas, mujeres?

EMAKUMEAK. Birago! ¡Teles gaisoaren errukarria!

ARTZAB. ¿Nun da Minzorrotz, biragotšo bat nere gaiñera jaurtiki dezan? (Berriz emakumeak intzirika. Teles Ortzuri mintšuridunaren ondoan bego, Gizonak gogor ar bezate Artzabal. Emakumeak, gizonai besondotik tiraka, etšera eramán nairik.)

EMAKUM. Gera zaitezte goizeon, gizonak, legorrean **(24)**, arren.

ARTZAB. Gaur itšasora eztatorrena bein ere nere ugarikan ezta sartuko. (Arrantzaleak aldarte tšarreko bijoaz berriz ugariketara. Ìleder Ortzuri esnatu nairik.) **(32, 25)**.

MARI ANDRESEK. **(26)** Basili ¿ezaldion agur egin nai ire senargai eder oni?

ORTZ. (Ìšil-mišilka) **(26)** Ìleder, arren gera adi.

ÌLEDEREK. (Nasertzetik). **(26)** Nere Ortzuri, uso ederra : iñebete barru sapelatz orrengandik jaregingo aut.

SEIGARREN AGERRALDIA

AZKEN-AGURRA

EMAKUMEAK. (Badiara begira.) Zoazte, senar ta seme maiteok, Jaunaren laguntasunez. Oyalok, tantai ederretan aize bigunez puzgoturik, zaramazkitela.

ARRANTZALEAK. (Ugariketatik.) Agur, agur, emazte ta ama laztanok.

ÌLERDERREK. Agur, Ortzuri nerea **(5)**.

ORTZURIK. Agur, Ìleder neretšoa **(5 B)**.

EMAKUMEAK. Agur, agur **(26)**.

ARRANTZ. Agur, agur.

EMAKUM. Zoazte, senar ta seme maiteok, Jaunaren laguntasunez.

ÌLED. Agur, maitea : nere Aitaren bekosko iñuna argitzan, Ortzuri.

ARRANTZ. Agur, maiteak.

EMAKUM. Oyalok tantai ederretan aize bigunez puzgoturik zaramazkitela.

ARRANTZ. Agur, agur, agur.

EMAKUM. Agur, agur, agur.

ÌLED. Agur, agur.

ORTZ. Agur, agur **(26)**.

ÌLED. Agur

ORTZ. Agur.

OROK ELIAN. Agur.

(Ugarikak poliki urrutira doazanartean, agertoyala astiro eratsiko dute) **(26)**.

ZATIKA. ¿Por qué gritáis así?

LAS MUJERES. ¡Maldición! ¡Desgraciado del pobre Teles!

ARTZ. ¿Dónde está Minzorrotz, para que lance sobre mí una maldicioncita? (Chillan de nuevo las mujeres. Toles se queda junto á la desmayada Ortzuri. Los hombres increpan á Artzabal. Las mujeres quieren llevarse á los hombres, tirándoles del brazo.)

LAS MUJERES. Quedaos esta mañana, hombres, en tierra! os lo suplicamos **(24)**.

ARTZABAL. El que no viene hoy á la mar no entrará jamás en mi lancha (Los pescadores vanse de mal humor á las lanchas. Ñeder quiere despertar á Ortzuri) **(32, 25)**.

MARI ANDRES. **(26)** Basili ¿no quieres decir adios á este tu hermoso novio ?

ORTZURI. (En vos bajita) **(26)**. Ñeder, quédate por Dios.

ÑEDER. (Desde el borde del muelle) **(26)**. Mi Ortzuri, hermosa paloma : dentro de un mes te libraré de esa cernícalo.

SEXTA ESCENA

LA DESPEDIDA.

LAS MUJERES. (Mirando á la bahía) Idos, amados maridos é hijos, con el auxilio del Señor. Que esas velas, hinchadas de suave viento en hermosos mástiles, os lleven.

PESCADORES. (Desde las lanchas) Adios, adios, amadas esposas y madres.

ÑEDER. Adios, mi Ortzuri.

ORTZURI. Adios, Ñeder mío. (liter. *miito*).

MUJERES. Adios, adios.

PESCADORES. Adios, adios.

MUJERES. Idos, amados maridos é hijos, con el auxilio del Señor.

ÑEDER. Adios, amada; alegra, Ortzuri, el obscuro entrecejo de mi padre.

PESCADORES. Adios, amadas.

MUJERES. Que esas velas, hinchadas de suave viento en hermosos mástiles, os lleven.

PESCADORES. Adios, adios, adios.

MUJERES. Adios, adios, adios.

ÑEDER. Adios, adios,

ORTZURI. Adios adios **(26)**.

ÑEDER. Adios.

ORTZURI. Adios.

EODOS A CORO. Adios.

(Mientras poco á poco se alejan las lanchas, bajarán pausadamente el telón) **(26)**.

FIN DEL PRIMER ACTO.

BIGARREN ATALA

(Mendiriko nasa batean, lenengo atalekoan ez.

Barrenaldean mendi bat agiri da. Mendi onen barrenenn digo badia. Ikieslen eskubitik dago nasara bidea.)

LENENGO AGERRALDIA

LAITIZ, bera beratara.

LAITIZEK. **(8)** Izarrik izarrena, **(8)** iparrerri otzetako sumeta guztiak, batera ketan asita, ilundu ezin didaten izarra, Basili **(6)**. Ez Aldebaran, ez Sirio, ez Artizarra begiztatu ezin nituen gau ilun beltz ayetan, maite, nere eder ori, ikusten indudan; eta ire irudi galanta zonan nere itšasbideko argia.

Ordea eguzkiaren goitasuna negurtzerakoan, betaurereko beirakietan agertzen intzakidan, galantik, ta ire argiak ostargia itzalirik, eguteragoa galduaz, bertatik aingeruren batez, Mendiriko kai-kalean **(46)**, ire ta nere burua ikusten nizkan : i saregiñen, zorigiñen ni ari giñala **(47)**, ta arratsaldean Arizpen itsusoiñua entzuten ta alai krisketan. **(27)** Oro, bide egiñik, guri begira ta andiesten ari ziran.

Laster **(8)** Sunderlandgo kale zabaletan arto mamizko arpegidun gizandre ayek, ire tšaran-begi, urki-soin eta itšastšori-ibilkera nabarituran, alkarri galde egingo diete «¿ nor degu nasa betean datorren andre gazte, tšairo, lirain, apain, eder, malota ori? — An, urrutitšo agiri dan ontzi lan tantaidun artako buruaren emaztea », erantzungo du norbaitek.

Gerošeago, nere guraso zârrengandiko ondasunai **(8)**, nere izerdiazkoak gaiñeraturik, lurriñontzi ikusgarri bat erosi dezadan aldian **(6)**, Basili izentzat ezarriaz, itšaso ugarotsu eskerga guztiak igarota **(6 B)**, kai-

SEGUNDO ACTO

(En un muelle de Mendiri, que no sea en el del primer acto. En el fondo se ve un monte. En la falda de este monte está la bahía. A la derecha de los espectadores está el camino que conduce al muelle.)

ESCENA PRIMERA

LAITIZ.

LAITIZ. **(8)** (Oh tú) la más estrella de las estrellas, **(8)** estrella que todas las columnas de humo de países fríos del Norte, puestas á humear odas juntas, no me pueden eclipsar, Basili **(6)**. Aquellas obscuras negras noches en que no podía yo divisar ni Aldebarán, ni Sirio, ni la estrella del alba; te veía continuamente, amada, hermosa mía; y tu imagen gentil era la luz de mi rumbo.

Mas al tomar la altura del sol te me aparecías gallarda en los vidrios que tenía ante los ojos y apagando tu luz la luz del cielo, perdida la orientación, de súbito por mediación de algún angel veía en Mendiri en la calle del puerto **(46)** tu persona y la mía : ocupados tú en hacer redes, yo en hacer mi felicidad **(47)**, y á la tarde oyendo en Arizpe música de ciegos y bailando alegremente. Todos, haciendo corro, se ocupaban en mirarnos y ensalzarnos.

Pronto **(8)**, en las calles anchas de Sunderland, aquellas mujeres hombrunas, de cara de meollo de borona, al distinguir tus ojos de endrino, cuerpo de abedul y porte de gaviota, se preguntarán unas á otras «¿quién es esa joven señora que viene llenando el muelle, airosa, esbelta, elegante, hermosa, guapa? — la mujer del capitan de aquel buque de cuatro mástiles que aparece allí lejitos : responderá alguien.

Poco más tarde, acumulando á los bienes heredados de mis ancianos padres **(8)** los que provengan de mi sudor, cuando **(6)** compre un vistoso buque de vapor, poniéndole por nombre Basili **(6)**, la enviaré á

tzarrik kaitzar iri andi ta ospetsuenetara **(6)** burua erakustera bidaliko det, Ludiaren bost aldêtan zabal izan dadin **(27)** nere maite orren izen eztsua; Basili.

BIGARREN AGERRALDIA

MAKOLIN, LAITIZ, ORTZURI (isilik) ETA MINZORROTZ.

MAKOLIÑEK. (Laitizi) **(4)** Joateko esan du.

LAITIZEK. ¿Zer dek, tšiki?

MAKOL. ¿Kontzek dio bereala joateko.

LAIT. ¿Zein Kontzek?

MAKOL. Kontze Minzorrotzek.

LAIT. ¿Nora?

MAKOL. Beraren etšera.

LAIT. Aitzera lampernatarako nagoela ta bazkalondoan banoakiola : bizkor ibili.

MAKOL. Saritzat zigarrotošo bat **(29)** ta pizturik (Laitizek migarrotšo bat eman bezayo ta arrast bat berazeki). Miła esker (Eskuak pozez igortziaz).

LAIT. ¿Nai aldek egunero nereganatu...

MAKOL. Bai, jauna.

LAIT. Ezkutitz bat eramateko?

MAKOL. ¿Nori?

LAIT. **(6)** ¿Eztakik? Berari. Basiliri **(6 B)**.

MAKOL. Ta egunero bat ¿e?

LAIT. **(29)** Ta pizturik. **(28)** (Makolin krisketan bijoa) ¿Zertarako nai otenau Minzorrotzek? ¿emaztegayak ikusteko ezote? bai noski. Aitzak : gorde ongi zuen lapa, lanperna ta karrakailak. Guztiak eztute nere maitearen begirakunetšo baten domurik. Kontze Minzorrotz : banoakizu, ez ordea zure musker-begi oyek ikustera **(19, 5 B)**. (Ortzuri, zapia begietan duela, negarrez igaro bei).

¿Zer den, Basili, negar egiteko? Ire, etšerako asmoa ninan. ¿Zer den, zer den? ¿Kontzek garrazkeriaren bat, esan aldin? (Ortzuri bijoa).

MINZOR. Garrazkeriak zerorrek bear zinduzke, dei egin ta ere etzatozelako. ¿ Aitzean emaztegayak atšitzen aldituzute?

cruzar todos los mares **(6 B)** profundos inmensos y á mostrarse de puertazo en puertazo (por los puertos más enormes) en las ciudades más grandes y célebres **(6)**, para que el melifluo nombre de mi amada, sea conocido **(27)** en las cinco partes del mundo : Basili.

ESCENA SEGUNDA

MAKOLIN, LAITIZ, ORTZURI (en silencio) Y MINZORROTZ

MAKOLIN. (A Laitiz) **(4)**. Ha dicho que vaya V.

LAITIZ. ¿Qué tienes, pequeño?

MAKOL. Dice Kontze, que vaya V. en seguida.

LAITIZ. Cuál Kontze?

MAKOL. Kontze Minzorrotz.

LAITIZ. A dónde?

MAKOL. A su casa.

LAITIZ. (Dile) que estoy para ir á la peña por anatifas (percebes) y que iré donde ella después de comer : anda ligero.

MAKOL. Por recompensa un cigarrillo **(29)** y encendido, (Laitiz dele un cigarrillo y encienda una cerilla). Mil gracias. (frotándose de gozo las manos).

LAITIZ. Quieres venir donde mí todos los días...

MAKOL. Sí, señor.

LAITIZ. Para llevar una carta?

MAKOL. ¿A quién?

LAITIZ. **(6)** ¿No lo sabes? A ella, á Basili **(6 B)**.

MAKOL. Y todos los días uno ¿eh?

LAITIZ. **(29)** Y encendido **(28)** (Makolin vase bailando). ¿Para qué me querrá Minzorrotz? ¿Tal vez para ver á la novia? Sí probablemente. Peñas : guardad bien vuestras lapas, percebes y caracolillos. Todos ellos no valen una mirada de mi amada. Kontze Minzorrotz : me voy donde V., mas no á ver esos sus ojos de lagarto **(19,5 B)** (Ortzuri, teniendo pañuelo en los ojos, pasa llorando). ¿Qué tienes, Basili, para llorar? Yo abrigaba el proyecto de ir á tu casa. ¿Qué tienes, qué tienes? ¿Acaso te ha dirigido Kontze alguna palabra acre? (Vase Ortzuri.)

MINZOR. Palabras acres usted mismo las merece por no haber venido ni aun llamándole ¿En la peña pescan ustedes acaso novias?

LAIT. ¿Ze berri degu, Kontze?

MINZ. Basiliren biotz zaiña beratzeko, bitši bat naiz soiñeko ederren bat erosi bear degula.

LAIT. Bi bear badira ere, ez atzeratu; erosi len bai len urrezko bitši eder oyek ta jostunak ar bezayo bere soin liraiñaren negurria ta oyala goyen goyenekoa izan ditela.

MINZ. ¿Ta au? (Beatzez dirua ezagutarazi beza).

LAIT. **(8)** (Laitizek sakeletik katanarrua atera ta aratuaz). Berealaše zatoz nere etšera ta izango dezu.

MINZ. Goazen.

LAIT. ¿Kontze? ¿nola da Basili negarrez egotea?

MINZ. Tzzzzz ¡emakumên negarra! jajajajaja.

LAIT. ¿Nola, nik itz egin eta ark ez erantzutea?

MINZ. Emakumeon negarra ¿negarra alda?

LAIT. ¡Elizan doneak ikusten bezela, ni kalean ikusiak Basili poztu oi zuela!

MINZ. Orrelaše han zidan berdantzat.

LAIT. ¿Nola liteke beraz...?

MINZ. ¿Nola? **(7)** Zaude piškat. Oskoroa, izkairik ikusgarriena dalariki gaurik gau, beti aldago giro oneko, izartsu, intz-urtika eta urdin?

LAIT. Nere ost eder oneki nundikoak oteditu beronen ostar-gia iñundu dieten odei beltz-beltz malkotsu oyek?

MINZ. Begira, Laitiz. Guk, Amok, etšaldean sua erdi ilik, ogeak eragin gabe, erratza nagi zokondoan ikusirikan, beti oi dauzkagu begietan itšasaingiraren soa ta ezpainetan itz negar-edaleak.

LAIT. ¡Itšasaingirak bezela gaišoari! Banoakio. (Joan nai du).

MINZ. **(22)** Zatozkit onera, buruško.

LAIT. ¿Zertara? Nayago det arengana joan.

MINZ. Ezkontzegunerako bosteun dukat agindu bear dizkidazu.

LAIT. Berdantzat bayetz esan nizun.

MINZ. Eta gaiñera zuek nerekin bizi izatea. **(7)**. (Laitiz isilfik).
¿Zer diozu? (Isilik luzarago) Zer diozun. ¿Zer?

LAIT. ¿Ta atzerrietara bear bagendu?

MINZ. Ni ere atzerrietara.

LAIT. ¿Ta Basilik nai ezpalu? (Mendigaiñean sua).

MINZ. Senarrak nai baldin badu **(6)** ¿Zer du gonadunak zer oartu ta jarki? **(22)**.

LAITIZ. Qué noticias tenemos, Kontze?

MINZOR. Que para ablandar el corazón correoso de Basili tenemos que comprar una alhaja ó algún hermoso vestido.

LAITIZ. Aunque se necesiten dos, no se eche pie atrás; comprese cuanto ántes esas hermosas joyas de oro y tómele la costurera medidas de su esbelto cuerpo y que el paño sea de lo más caro.

MINZOR. ¿Y esto? (Indique dinero con los dedos.)

LAITIZ. **(8)** (Sacando del bolsillo la cartera y registrándola.) Venga V. en seguida á mi casa y lo tendrá V.

MINZOR. Vámonos.

LAITIZ. Kontze ¿ cómo es que Basili estuviese llorando?

MINZOR. Tzzzzzz ¡llanto de mujeres! Jajajajaja.

LAITIZ. ¿Cómo, habiéndole yo hablado, no me ha respondido?

MINZOR. El llanto de nosotras las mujeres ¿es acaso llanto?

LAITIZ. ¡Que, como la vista de los santos en la iglesia, le alegraba el verme en la calle!

MINZOR. Así me lo dijo anteanoche.

EAITIZ. ¿Pues cómo puede ser...

MINZOR. ¿Cómo? **(7)** Aguarde un poco. La bóveda del cielo, siendo la cosa más vistosa ¿está acaso cada noche, siempre, de buen temple, estrellada, destilando rocío y azul?

LAITIZ. Este mí hermoso cielo ¿de dónde tiene esas nubes negrísimas, lacrimosas que obscurecen su luz celestial?

